

[ZARAUTZ](#)

# Bidegurutzeetan aurrera egiteko istorioak idatzi ditu Nerea Loiolak

[Aritz Mutiozabal](#) 2024ko aza. 7a, 10:16

Entzun ▶



Nerea Loiola liburu berriarekin. (Erein)

*Zembrak eta bideak* izeneko bigarren narrazio bilduma kaleratu du Zarauzko bizilagunak. Bertan, elkarrengandik autonomoak diren sei ipuin jaso ditu.

"*Zembrak eta bideak*. Esan behar dut, izenburu posible bezala agertu zitzaidanean, gertuko zenbait laguni eskatu niola iritzia eta batek baino gehiagok komentario berbera egin zidala: 'Gustatzen zait, oso Anari da''. Posible da Nerea Loiolaren bigarren narrazio liburua eskuetan jaso eta titulua irakurtzean subkontzienteak abeslari azkoitiarraren lanen bat edo beste iradokitzea, baina ezta hurrik eman ere. Antzekotasun oro kasualitate hutsa izango da. Erein argitaletxearen eskutik, beste behin ere, helduei zuzendutako sei ipuinez osatutako lana argitaratu berri du Zarauzko bizilagun debarrok, Raul Guerra Garrido bekaren bitartez garatu duena.

Dezenteko oihartzuna izan zuen *Epizentroa*-ren ondotik dator *Zembrak eta bideak*, lehenengoaren jarraipen, garapen eta zaitze gisa. Inazio Mujika Ereineko editoreak "Ez Dok Hamahiru" kolektiboaren erreferentzia egin zuen txantxetan, Epizentroa-n zazpi narrazio bildu zituelako Loiolak eta liburu berrian, berriz, sei. "Ez daude hari batez lotuak, autonomoak dira elkarren artean. Bereizgarria dena da Nerearen kontatzeko modua. Atmosfera ezberdinak ondo eraikitzen daki, non dena sinesgarri bihurtzen duen", zehaztu zuen editoreak asteartearen Donostian eginiko aurkezpen ekitaldian.

## Espazioa emanez

2021eko udazkenean hasi zen liburuko lehen ipuinak idazten, eta idazketa prozesuan, istorio bakoitzari "bere espazioa eskaintzeko" aukera izan du. Loiolaren iritziz, hori nabari da eta irakurleak ere ohartuko dira, "ipuinak elkarren artean oso desberdinak" direlako. Edonola ere, komunean dituzten zenbait elementu daude narrazioetan: alde batetik, protagonista guztiak emakumezkoak dira, adin eta ezaugarri

desberdinak, eta bestetik, gai batzuk maiz agertzen dira, hala nola maitasuna, desioa, sexua, emakume gorputza, gizarteko ezarritako genero espektatibak, amatasuna, beldurra, antsietatea eta abar.

Giza harremanetan ezarritako ardatzak eta sortutako atmosfera narratiboek ematen diote osotasuna liburuari, idazlearen esanetan: "Arreta handia jartzen saiatu naiz harremanetan, detailetan, keinu eta ekintza txikietan. Nahi izan dut unibertsala den horretara iritsi, xehetasunetik abiatuta".

*Zebrak eta bideak* izenburura itzuliz, liburuko azken narriatik hartua dela zehaztu behar da. Bertan zebrak, zebribideak eta bidegurutzeak azaltzen dira, baina ipuinari titulua jartzerakoan, "zekarren sinbologiaz" ohartu zen Loiola, eta horrek osotasun bat eman dio ipuin bildumari. "Izan ere, ipuin hauetako pertsonaiek aurrera egin beharko dute bizitzak eta gizarteko ezarritako bidegurutzeetan. Geldirik egotea ez da aukera bat". Horrez gain, animaliek ere presentzia nabarmena dute istorioetan, pertsonaien ispilu modura: "Sortuko da halako itzal-errebelazio binomio bat geure barneko lokatz zokoratuak nahastera etorri dena".

## Begirada aldatu

Lan berria idazterakoan, erosotasun egoeratik aldentzeko eta erronka berriei aurre egiteko grina izan du Loiolak. Hori horrela, idazterakoan ahots eta egitura desberdinak probatzen ibili da, begirada ezohiko lekuetan jartzen. Ondorioz, liburuan aurki daitezke ipuin laburrak, "sentsazio edo une bat harrapatzen dutenak", eta arnas luzeko ipuinak, "nobelaren pultsura gerturatzen direnak"; protagonisten ahotsetik kontatutako istorioak nahiz kanpo narratzaile batek kontatutakoak. "Egitura klasikoa jarraitzen dute narrazio batzuek, eta esperimentaziotik gehiago edan dute beste batzuek", jakitera eman du idazleak.

Ipuin guztiak jolasten dute nolabait iraganaren eta orainaren arteko kontrastearekin, baina argi utzi nahi izan du sei narrazioetatik bost "hemen eta orain" kokatu dituela. Seigarrena, Zebrak eta bideak alegia, bestelakoa da: 2000. urteko nerabe baten bizitzari buruzkoa da, eta ezinbestean euskal gatazkari buruzkoa. Loiolak aitortu du oso zaila izan zaiola gai horri buruz idaztera ausartzea. Ipuinek baditzute giro eta tonu ilun nahiz dramatikoak, baina atmosfera horiek orekatze aldera, umorea ere erabiltzen du. Hori bai, "garraztasunetik, ironiatik eta umore beltzetik".

[Kultura Zarautz](#)

Zarautz Gukak zu bezalako irakurleen babesea behar du tokiko informazioa euskaraz eta modu profesionalean lantzen jarraitzeko.

[Izan Gukakide](#)

[Erantzun](#) 

'Itsasoaren (h)egiak' dokumentala, osorik ikusgai

Errefuxiatuen aldeko txokolatada solidarioa antolatu du Hotz

Mikel Morris: "Amerikako Estatu Batuetara joatean

Lan oso txukuna eginda amaitu du Aner Peritzek



## Ikusienak



[Lan oso txukuna eginda amaitu du Aner Peritzek Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa](#)

Ane Olaizola abe 14, 21:46 [Zarautz](#)

[Goizean goiz jokatu dituzte plaieroetako bosgarren jardunaldiko partidak](#)

Julene Sorarrain abe 15, 13:00 [Zarautz](#)

[Jaitsi aurretik, eskerrak](#)

Aner Peritz 'Euzkitze' ('Berria' egunkaria) abe 13 [Zarautz](#)

["Zarauzko historiari eta ondareari lotutako elkarrebatu sortu nahi dute zenbait herritarrek](#)

Julene Sorarrain abe 15, 15:00 [Zarautz](#)

[Harremanak estutzen munduko gastronomiak ezagutzen diren bitartean](#)

Julene Sorarrain - Juan Luis Romatet abe 15, 10:00 [Zarautz](#)

[Udaberri elkarreka urteari agurra emateko egitaraua prestatu du](#)

Julene Sorarrain abe 15, 10:00 [Zarautz](#)

## UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

Araba kalea 27 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

Telefona: 943 89 00 17 | Helbide elektronikoa: [zarautz@ukt.eus](mailto:zarautz@ukt.eus)

Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)

### Babesleak



[Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa](#)



**TOKIKOM**

Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)   [AIKOR](#)   [AIURRI](#)   [ALEA](#)   [AMEZTI](#)   [ANBOTO](#)   [ANTXETA IRRATIA](#)   [ATARIA](#)   [AZPEITIA GUKA](#)   [AZKOITIA GUKA](#)  
[BARREN](#)   [BEGITU](#)   [BERRIKETAN](#)   [DROGETEN ITTURRI](#)   [ERRAN](#)   [EUSKALERRIA IRRATIA](#)   [GEURIA](#)   [GOIENA](#)   [GOIERRI TELEBISTA](#)  
[GUAIXE](#)   [GUKA](#)   [GUKA TELEBISTA](#)   [HIRUKA](#)   [KRONIKA](#)   [MAILOPE](#)   [NOAUA](#)   [OIZMENDI TELEBISTA](#)   [ORIO GUKA](#)   [PLAENTXIA](#)  
[TXINTXARRI](#)   [URIOLA](#)   [ZARAUTZ GUKA](#)   [ZUMAIA GUKA](#)   [28 KANALA](#)

[Matx](#)   [Gurean](#)   [Plazanbazan](#)   [Ttap](#)  
[Tokikom publizitatea](#)